

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2009	R12/2014	2014-12-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Administrazio eskumenduna. Gatazkaren onartezintasuna.

R 12/2014 Ebazpena
2/2009 espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2014ko abenduaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurka aurkeztutako gatazkaren inguruan -1. ERAKUNDEA (IFZ---1, aurrerantzean erakundea edo 1. ERAKUNDEA) erakundearen 2004ko ekitaldiko Sozietate Zergaren inguruan egon daitezkeen zehapenak kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko, ikuskatzeko eta ezartzeko eskumena-, Arbitraje Batzorde honen aurrean tramitatua 2/2009 espediente-zenbakiarekin, txostengilea Isaac Merino Jara jauna delarik.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka ZAEAko zuzendari nagusiaren 2009ko otsailaren 12ko idazki bidez planteatu zen, eta idazkia hurrengo egunean sartu zen Arbitraje Batzorde honetan.

2. Espedientearen arabera, honako hauek dira aurrekariak:

- Erakundea -higiezinaren sustatzailea- bereganatu egin zuen helbidea DONOSTIAN duen 1. SOZIETATEAK (IFZ---2). 2004ko urriaren 29an egin ziren bi sozietateetako bazkideen Ezohiko Batzar Unibertsalak. Bat-egiteari buruzko erabakia eskritura publikoan jaso zen 2004ko abenduaren 14an, eta hilaren 31n inskribatu zen Merkataritza Erregistroan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2009	R12/2014	2014-12-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Administrazio eskumenduna. Gatazkaren onartezintasuna.

- 2006ko azaroaren 26an, erakundeak 036 eredua aurkeztu zuen Valladolideko Ogasun Ordezkaritzan, jarduera bukatzearen laukia beteta, horren arrazoia helbidea DONOSTIARA aldatzea zela adieraziz. Eredu horrekin batera, idazki bat aurkeztu zuen erakundeak, eta, bertan, zerga-egoitzaren aldaketak ondorioak 2004ko otsailaren 5etik aurrera izateko eskatzen zuen. Halaber, idazki horretan zioenez, Valladolideko ZAEAREN Ordezkaritzan aurkeztu zituenez BEZAREN, PFEZ atxikipenen eta SZREN autolikidazioak, epez kanpora aurkeztu zituen Gipuzkoako Foru Ogasunean.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak 1. SOZIETATEAREN (1. ERAKUNDEAREN ondorengoa edo bereganatzailea) ikuskapen-lanak hasi zituen 2006ko irailaren 7an, 2004ko ekitaldiko Sozietate Zerga dela eta. Desadostasun-aktak 2006ko abenduaren 22ko data du. Handik etorritako 2007ko otsailaren 14ko likidazioaren kontrako berraztertze-errekurtsoa jarri zen 2007ko otsailaren 20an, ezetsi egin zen 2007ko apirilaren 24ko erabakiz, haren aurkako 2007/0364 erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zen maiatzaren 24an, eta ezetsi egin zen 2008ko uztailaren 29an.

- ZAEAK aitortzen du 2008ko urriaren 15ean izan zuela Gipuzkoako Foru Ogasunak hasitako aktaren berri formala. Espedientean, gai horren inguruan ZAEARI zuzendutako hiru idazki daude jasota: a) Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboko idazkariaren idazki bat, 2008ko irailaren 30ekoa, ZAEAREN Euskal Autonomia Erkidegoko Eskualde Ikuskatzaitzari zuzendua eta honako hau dioena: "Zure eskabidea ikusirik, 28.029 Ebazpenaren kopia doakizu erantsita, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratibo honek onartua, 2007/0364 erreklamazioaren inguruan egindako saioan"; b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskatzaitzako zuzendariorde nagusiaren idazki bat, urriaren 28koa (irteera-erregistroa hurrengo egunean), honako hauek adieraziz: bat, 1. ERAKUNDEAREN ondorengo unibertetsala den 1. SOZIETATEARI 2006ko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2009	R12/2014	2014-12-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Administrazio eskumenduna. Gatazkaren onartezintasuna.

abenduaren 22an irekitako desadostasun-aktaren fotokopia bidaltzen dela; bi, zergapekoak ez zuela alegaziorik aurkeztu, Foru Ogasuneko Ikuskatzailtzako zuzendariorde nagusiaren otsailaren 14ko Ebazpenean agertzen denez (hura ere bidaltzen da); eta hiru, FAEAREN Ebazpenaren 2008ko uztailaren 29ko eskatutako fotokopia; eta c) Foru Ogasuneko Ikuskatzailtzako zuzendariorde nagusiaren idazki bat, abenduaren 15ekoa (irteera-erregistroa 19an), ZAEAREN Euskadiko Eskualde Ikuskatzailtzara zuzendua, honako hau adieraziz: "Zergadun Handien Ordezkaritza Zentralak Zerga Administrazio horren 2008ko azaroaren 5eko idazkiaren bidez 1. ERAKUNDEAari buruz (IFZ ---1) eskatutako informazioa dela eta, erantsita bidaltzen dizut eskatutako dokumentazioa" (erreferentziatutako bera).

- 2008ko abenduaren 15ean, ZAEAK inhibitzeko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, 1. ERAKUNDEAREN 2004ko ekitaldiko Sozietate Zerga ordainarazteko eskumenean.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumena berretsi zuen 2009ko urtarrilaren 15eko idazkiaren bidez (ZAEAKO erregistro-zenbakia 21ean). Besteak beste bertan esaten zenez, Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren 2008ko uztailaren 29ko Ebazpena errekurritu zuen 2. ERAKUNDEAK (erakunde interesdunaren egungo izena) 2008ko urriaren 13an, EAEKO Auzitegi Nagusian (1311/2008 errekurtsioa).

- 2009ko otsailaren 12an, esandako moduan, ZEAeko zuzendari nagusiak gatazka hau ipini, eta Arbitraje Batzorde honek tramiterako onartu zuen 2009ko martxoaren 6an.

3. Espedientea agerian jarri ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazioak egin zituen, 2009ko apirilaren 20ko idazkiaren bidez. Idazki horretan, lehenik, gogorarazten da Administrazio horrek jada administrazioarekiko 1311/2008 auzi-

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2009	R12/2014	2014-12-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Administrazio eskumenduna. Gatazkaren onartezintasuna.

errekurtsoan erantzun ziola zergapekoak jarritako inhibitze-errekerimenduari, eta, bigarrenik, eskatzen du hango alegazioak aintzat hartzea, Arbitraje Batzordearen jarduerak gelditzea -administrazioarekiko auziaren ebazpen judiziala irmoa izan arte-, eta, subsidiaritasunez, Estatu Administrazioaren asmoak ezestea. Erakunde interesdunaren egungo izena den 2. ERAKUNDEAK ere alegazioak egin zituen 2011ko uztailaren 22an.

4. 2011ko ekainaren 8an, alegazioak aurkeztu zituen ZAEAK: bere esanetan, lehenik, gatazkak "jada ez du zentzurik, Auzitegi Nagusiaren 2010eko urriaren 11ko Epaiak onartu egin baitzuen zergapekoak jarritako administrazioarekiko 1311/2008 auzi-errekurtsoa"; eta, bigarrenik, 1. ERAKUNDEAREN 2004ko ekitaldiko Sozietate Zergaren zehapenak kudeatzeko, likidatzeko, biltzeko, ikuskatzeko eta ezartzeko eskumenari buruzko arrazoiak ematen ditu.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Desadostasuna dago ZAEAREN eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean, 2004ko ekitaldiko Sozietate Zerga sortzeko unean 1. ERAKUNDEAREN helbide fiskala zein zen. Hori baino lehen, ordea, gatazka hori onargarria den erabaki behar dugu.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta erakunde interesdunaren ustez, Arbitraje Batzordearen Arautegiko 9. artikulua aplikatuz -"ezin da gatazkarik aurkeztu Justizia Auzitegiek ebatzita edo ebatzi zain dauden arazoei buruz"-, ezin dugu epairik eman gatazkaren funtsari buruz.

3.- Berez, gatazka hau tramiterako onartzean gure eskumena aztertu balitz, gure eskumenik eza aitortu beharko genukeen; gure ebazpenak balio izateko baldintzak egiaztatzea, baina, ondoren egin daiteke, baita -kasu honetan bezala- gatazkari amaiera ematen dion ebazpenean ere. ZAEAK ez zuen gatazka planteatu behar, bai baitzekien prozedura judizial bat zegoela EAEko Auzitegi Nagusian. Aukeran zuen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2009	R12/2014	2014-12-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Administrazio eskumenduna. Gatazkaren onartezintasuna.

Auzitegi Nagusi horretan bere eskumenak aurkeztea, eta, hala bazegokion, Arbitraje Batzorde honen alde inhibitzeko eskatzea.

4.- Dena dela, FAEAREN ebazpen ezeslea dela eta, EAEko Auzitegi Nagusiak 2010eko urriaren 11ko 678/2010 Epaiaren bidez berretsi zuen 1. ERAKUNDEARI egindako 2004ko ekitaldiko Sozietate Zergaren likidazioa, Gipuzkoako Foru Aldundiak haren aurkako kasazio-errekurtsoa jarri, eta Auzitegi Gorenaren 2011ko apirilaren 28ko Autoak ez zuen onartu. Epai horren laugarren oinarriak aipatzen duenez, Auzitegiak ezetsi egin du errekurritutako likidazioa egiteko "Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumen-faltaren" arrazoia, eta onartu egiten du zergapekoak jarritako errekurtsoa.

5.- ZAEAREN alegazioek frogatu nahi dute Arbitraje Batzorde honek ez duela epaia emateko ezintasunik, epai irmo bat egon arren. Ildo horretan, ZAEAK dioenez, prozesu judiziala eta aztergai dugun arbitraje-prozedura ez datoz bat. Dioenez, Estatuko Zerga Administrazioa ez da parte izan prozesu judizialean; beraz, ezin da esan bi Administrazioen arteko eskumen-gatazka bat bide judizialean dagoenik, eta horrekin batera bide administratibo bat egon ezin denik lehiakide berekin. Gainera, bata eta besteak argitzen dituen alderdiak desberdinak omen dira. Bukaeran dioenez, zergapekoak hasi zuen prozesu judiziala -ados ez zegoelako desadostasun-aktako likidazioarekin, eragiketaren arrazoi ekonomikoa balioduna zen zalantzan jarriz-, baina prozesu judizial horretan ez da aipatzen eskumena Foru Aldundiari ez baizik Estatu Administrazioari dagokionik.

6.- Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erakundeak adierazi dutenez, epai irmo bat dago, eta horrek eragotzi egiten du Arbitraje Batzordeak gatazka honen inguruan sortutako sakoneko arazoari buruz erabakitzea.

7.- Gatazka planteatu zen aldi berean, konpondu beharreko gai bat zegoen, eta ebazteko garaian, gaia ebatzita dago, eta, beraz, ezin dugu erabakirik hartu. Era

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eraginpean hartutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
2/2009	R12/2014	2014-12-19	Gipuzkoako Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	SZ. Administrazio eskumenduna. Gatazkaren onartezintasuna.

horretan interpretatu dugu, *a contrario sensu*, Auzitegi Gorenaren 2010eko abenduaren 15eko Epaia, Izan ere, kasu honetan -ZAEAk diotenaren kontra-, judizialki erabakita dago Administrazioen arteko eskumena (2010eko urriaren 11ko EAEko Auzitegi Nagusiaren Epaiko laugarren oinarria), eta ZAEAk ez du horren kontra egin judizialki. Hura ez da babesgabe geratzen, tramitazioa hasi bezain laster izan baitu prozedura judizialaren berri, eta ez da aurkeztu bere eskumenaz baliatzeko.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

- 1.- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontra aurkeztutako gatazka onartezintzat jotzea.
- 2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea, bai eta horretarako bidalitako dokumentazio guztia itzultzea ere.
- 3.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta erakunde interesdunari.